

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Abenduak 21  
Igandea  
Alea: 970  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## Hernani Kirol elkarteetan 334 lagun dabilta boleibol, mahai tenisa, saskibaloia, judoa eta waterpoloan

■ 10etik 9 Hernanikoak dira eta gainerakoak inguruko herrietakoak ■ lazko sarien artean daude: Boleibolean Gipuzkoako txapelketa, domina sorta igeriketan, Liga eta kopa waterpoloan eta Liga nazionalean 10garren mahai tenisean.

HERNANI Kirol elkartekoak iazko denboraldiko balorazioa egin du eta aurtengo datuak zabaldutu ditu. Herriko taldeetan 334 lagun kirola egiten izatearen garrantzia nabarmendu dute eta kirolez kirol lortutako emaitzak eman dituzte jakitera. Iaz 87.000 euroko aurrekontua izan zuen.

Kirol Elkarteko kirolarien % 88 hernaniarrak dira eta % 12 inguruko herrietakoak. Hauetatik ia gehienak ikasleak dira. Lautik batek Hernanitik kanpora estudiatzen du eta Kirol Elkarteak nabarmendu du taldeen garrantzia, ikasle hauek herrian integratzeko bidean.

### Sei kirol eta sari asko

Kiroldegian entrenatu eta jokatzen duten taldeek osatzen dute Kirol Elkarteak. Iaz lortutako emaitzen berri eman diote Kronikari eta sari asko dira ateratakoak. Boleibolean, Gipuzkoako Txapelketa lortu zuten neska nagusiek; Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketa mutil jubenilek; Gipuzkoan txapeldun eta Euskadikoan bigarren dira mutil kadeteak; eta Gipuzkoan bigarren neska kadeteak. Horrez gain, Gipuzkoako selekzioan 20 mutil eta 4 neska izan dira eta Euska-



Judoka gazteak Hernanin, Gipuzkoako Txapelketan.

dikoan 19 mutil eta 2 neska.

Igeriketan Gipuzkoako selekzioan 4 hernaniar daude; Euskadikoan 2 eta Espainiako Txapelketara 2 hernaniar sailkatu dira. Eskolarteko kirolan 65 domina lortu ditu Hernanik Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketan: 47 urezkoak 8 zilarrekoak eta 10 brontzezkoak.

Judoan, Oskar Sanchez txapeldunordea da Euskal Herri mailan eta Eider Alonso hirugarrena kategoria nagu-

sian eta bigarrena junior mailan. Horrez gain, Espainiako txapelketan konpetitu du Oskar Sanchezek eta Eider Alonso bigarren izan da Milango Nazioarteko Txapelketan.

Mahai tenisean Liga Nazionalean konpetitu zuen iaz lehen taldeak eta Euskadiko Lehen mailan 2garren egin zuten. Gipuzkoako ligan txapeldunak dira hernaniarrak eta taldeka 3garrenak. Aitor Valverde eta Aitor Mitxelena Es-

tatuko 12 jubenil onenen artean daude gaur egun.

Waterpoloan Gipuzkoako liga eta kopan txapeldunak dira Hernaniko mutilik eta Euskadiko Ligean 3garren egin zuen nesken taldeak. Kadeteak Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun dira eta infantilak Gipuzkoako txapeldun.

Saskibaloia urtetan egon da talderik gabe eta aurten atera dute kadete mailako taldea eta maila oso ona ematen ari da. □

### FUTBOLA

## Hernanik 1-4 galdu zuen atzo Aretxabaletaren kontra

GORENGO taldeak egurra jaso zuen atzo Zubipen Aretxabaletaren kontra. Zuri berdeak aurreratu ziren markagailuak 1-0, baina, lehen zatia bukatu aurretik 1-1 berdindu zuen Aretxabaletak. Bigarren

denboran partidua irabazterera atera ziren hernaniarrak, baina, kontraerasoan 3 gol egin zizkienean Aretxabaletak eta 1-4 irabazi zuten. Hernanik 5 partidu zeramazkien galdu gabe eta atzo eten zitzaison ratxa. □

### BOLEIBOLA

## Hernanik 3-0 irabazi zion Bereziri, eta lehen postuan sendo doaz

HERNANIKO mutilen taldeak lehen postuan jarraitzen du sailkapenean, atzo Gasteizko Berezi taldeari 3-0 irabazita. Gasteiztarrek 3garren dijoaz sailkapenean eta erakutsi zuten talde

gogorra direla, hiru jokoak borrokatu baitzitzuten: 25-16, 25-23 eta 25-20. Hernani gero eta sendoago dago lidergoan eta lehen postuan gelditzeko helburua lortzeko bidean da. □

## Bertso jarriak bihar Milagrosan

BERTSO Lata hasia da dagoeneko eta bihar, astelehena, izango da bigarren emanaldia Milagrosa ermitan. Bertsoak Hernaniko berotsolariek kantatuko dituzte eta Imanol Kamiok jarriko die musika. Bihar, Milagrosan 19:30etan. □

## Karabelen krossa gaur

KARABELGO Krossa gaur da. Goizeko 10:00etan aterako dira umeak eta 600 metro egingo dituzte. Helduak 11:00etan dute irteera eta 8.300 metro egin beharko dituzte. □

## Ipui kontalaria bihar Biteri kultur etxearen

LUR Korta ipui kontalaria ariko da bihar, astelehena, Biteriko liburutegian. Bi sesio emango ditu: Lehenengo, goizeko 11:00etan eta 3-4 urteko umeentzat izango da. Bigarrena, 11:30etan, eta 5-7 urte arteko umeentzat izango da. Hernaniko Udalak antolatzen du ipui kontaketa eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza du. □

## Sari banaketa gaur Jubilatu Etxean

JUBILATU etxearen karta joko eta gainerako torneotako sari banaketa egingo da gaur 12:00etan. □

## Txitulari Banda gaur

TXISTULARI Bandak gabonetako kontzertua emango du gaur, eguerdiko 12:30etan Milagrosan. Txistulari Bandarekin batean musika eskolako hainbat musikari ere ariko dira. Zuzendaria Patxi Apetxeta da eta 8 obra joko dituzte. □

### ZINEA BITERIN

#### 'Dias de futbol'

BITERIN *Dias de Futbol* pelikula ari dira botatzen asteburuan eta gaur 19:30etan izango da. □

**XINTXUA HOTELA**  
Tel.: 943 33 17 50  
943 33 36 80  
Faxa: 943 33 18 35  
Zikuñaga auzoa 72  
20.120 HERNANI  
GELAK komona  
telebista  
Interneta  
KAFETEGIA PREZIO BEREZIAK  
APARKALEKUA TALDE ETA  
e-maila: HTreception@hotel-xtintxua.com - Web: www.hotel-xtintxua.com  
SAGARDOTEKI  
ZIRKUITUTOKI  
OSO GERTU

**Asun Esnal Bitxigintza**  
Etxearen konponketa  
egiten diugu.  
Enkarguzko lanak  
zillarrak eta urearekin.  
Joyeria artesanal  
Larramendi 3  
HERNANI 20120  
Tlf. 943 33 04 78

**MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN  
ATEAK ZABALDU DITU.**  
Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berriro ditu bere instalazioak eta inauguratzen dijoi. 1500 m<sup>2</sup> baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak.  
Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.  
MENABI Txingurri pasealeku, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia

## Bildu Hernanik dio "herritarren erabakia errespetatua izateko" beste aukera bat galdu dela

BILDU Hernani plataformak eskaria egin zion Joxan Rekondo Alkateari plataformak atera zituen botuak kontuan hartzea eskatzen. Rekondok esan zuen legez ezinezkoa zela Bildu Hernanik kideei zinegotzi bezala jarduteko eskubideak aitzortzea, eta herritarrek parte hartzeko modu berriak sortzen egingo dutela ahalegina. Bildu Hernanik erantzun egin dio Joxan Rekondori Kronikara bidalitako prentsa ohar batean eta esaten du berriz ere aukera bat galdu dela "hernaniarren hitza eta erabakia

errespetatuak izan daitezten". Joxan Rekondo "ezezko itxi eta intolerante baten atzean" babestu dela dio Bildu Hernanik eta beren eskaera guztiegi uko egin diela. Horrez gain esaten du Rekondok nabarmen utzi duen bakarra dela "Bildu Hernanik lortutako ordezkaritza legez kanpoko dela eta beraz ez dagokiola inolako eskubiderik".

### "Egoeraz baliatzen da"

Plataformak salatu du Bildu Hernani ilegalizatu izanaz baliatzen dela Alkatea "bere nahiak

inposatzeko" eta "herritarrek eman ez zioten ordezkaritza bat erabiltzen eta herritarren nahia bortxatzen" ari direla.

Bukatzeko Bildu Hernanik esaten du kompromisoa hartzen dutela herritarren nahia errespetatua izateko, hernaniarren alde lan egiteko eta elkarritzeta bultzatzeko. Bide horretan, dio "dagozkigun eskubide politiko guztiak aldarrikatzen eta gauzatzen jarraituko dugu. Herritarrek ordezkaritza politiko bat eman ziguten eta ez dugu onartuko borondate hori bahitua izatea". □

### JASOTA BEZALA

#### Argitu eta lasaitu

Lerro hauen bitartez, azken egunotan zenbait hedabideetan argitaratuak inguruan azalpen batzuk eman nahi ditut:

Dagoeneko Zaharren Egoitzaren lan egutegia onartuta dago, eta bertan ez da inondik inora azaltzen 25 edo 39 langile kaleratzeko asmorik dugunik, ezta kontrata berrikin lanean hasteko ere, aurreko korporazioarengandik jasotakoak mantenduko baititugu. Egutegi honen helburua hau da: Ongintza Patronatuak jasaten dituen zenbait arazo konpontzea.

Egoitzako biztanleen senideak zein bertako langileak lasai egon daitezen nahi nuke, 2004ko lan egutegiak ez baititu aldatuko gure zerbitzuen kalitatea ezta egungo langileen kopurua ere.

Azkenik, berriz azpimarratu nahi dut, Zaharren Egoitzako errealitya ezagutu nahi duen ororekin hitz egiteko prest nagoela. Zorionak eta urte berri on denori.

**Andoni Amonarriz  
Hernaniko Ongintza  
Patronatuko presidente**

#### Hirigintza eta Zorrotzsun

Manuel Frailek hirigintza tramitazioen gainean esandakoei erantzuna: Hirigintzan egiten dena solbentzia duten txosten teknikoetan babesten da, eta manuel Fraile ez da teknikoki konpetentea egin dena legezko den edo ez esateko. Dena den, gai hauetan egi bakarrik ez du inork, ezta Manuel Frailek ere, eta desadostasunak daudenean instantziak bidaude edozein auzi konpontzeko. Portuan emandako lizenzia bati

dagokionez, esan lizenziak bere trimitazioa dutela eta PERIak berea. Bi gauzak lotzeak esan nahi du ez dakizula zer diren hirigintza tresna desberdinak, eta grabea da hori Hirigintza Departamentuko buru lau urtean izan den batek esaten badu. Oraingo Gobernu taldea ez da PERIaren kontra jarri, eta honek tramitatzan jarraitzen du, baina ezin da auzo bat paralizatu, noiz onartuko zain. Arrazoi du Frailek Portuko lizenziako txosten teknikoak PERIA ez duela aipatzen esaten duenean, baina, horrek adierazten du lotua ez doazen bi gai direla eta aurreko Udal arkitektoak lotu bazituen, onenera, erabaki arbitrioia izan zen, intenzionalitatea juzgatzera sartu gabe.

Akarregiko industrialdeari dagoionez, gogoratu behar da, orain urtebete pasa Manuel Frailek plenoan alardeatu zuela industrialde hau desblokeatu izana, eta orain lehen lizenzia ematea kritikatzen du. Agian tantoa Euskal Herritarrokek apuntatu ezak izorratzen du.

Hernaniko hirigintza egoera ez da Manuel Frailek dioen bezalkoa. Errealitatea da, orain arte, industri eta bestelako aktibitate asko zeudela legez kanpoko edo alegal funtzionatzen zutenak eta hori konpontzen hasi gara. Errealitatea da puntuz puntu aztertu behar izan ditugula aurreko korporazioak onartutako hirigintza konbenio bereziak. Errealitatea da latz lan egin dugula eta segi beharko dugula Epeleko industrialdean Euskal Herritarrokek egindako estropizioa konpontzeko. Eta errealitatea da baita ere, gogo eta ideia

**ONDOJAN (Antziola rekta hasieran)**  
**ERAMATEKO JANA: Oilasko erreak enkarguz, etxeko sukaldaritza, prestatutako janaria, txarkuteria,...**  
**IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK**  
**ondojan**  
Antziola, 9. T. 943 33 12 52. Hernani

### HITZ BITAN



Inmaculadako DBH 3garren mailako taldea, Santo Tomasak ospatzen.

### ✓ SANTO TOMASAK

**Txistorra eta festa.** Santo Tomas eguna ospatuko da gaur Hernanin. Goizean txistorra eta sagardoa egongo dira Orkolagan, eta 300 kiloko txerria. Arratsaldean DJak dira Plaza Berrian, postua egongo da goizean eta 18:00etan erromeria. Garin tabernan, berriz, barrikotea egongo da txistorrarekin batean eguerdi parte-an. Bestalde, ikastetxeek ostiralean ospatu zuten Santo Tomas eguna eta txistorra, azokak eta festa izan ziren Hernaniko ikastetxeen guztietan. □

### ✓ BERRIAK ELKARTEA

**Bilera bihar.** Berriak komertziente eta ostalari elkarrean bilera du, bihar, astelehena Deportibo tabernan, 16:00etan.

### ✓ OSIÑAGA

**Kuota kobratzea eta musa gaur.** Osiñagako auzo elkarteko kuota kobratzen pasako dira gaur etxez etxe eta 10 euro da kuota. Bestalde, mus txapelketa ere gaur jokatuko da Osiñagan, Eizmendi sagardotegian. 16:00etan hasiko da eta sariak izango dira: 1) Txapelak eta bi txerrikume; 2) Trofeoak eta urdaiazpikoak, 3) Arkumea; 4) Txuleta. Inskripzioa 10 euro bikoteko. □

### ESKERTZA

#### Juan Bautista Peña Lertxundi

Abenduaren 16an hil zen, 91 urte zituela



Juan Bautistaren senideek eskerrak ematen dizkizuegu egun hauetan gurekin izan zaren guztioi, eta zuen laguntza eta babesea eman diguzuen denoi. Eskarrik asko.

Juan bautistaren familia

Hernanin, 2003ko abenduaren 21ean.

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

#### FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- Gauetan: Oa Usurbil. Poligono 1, 1 ☎ 943 376076



### Eguzki perfumeria



Eguzki  
perfumeria  
Gure dendaran,  
behar dezuna  
daukagu.

- Perfumeria
- Opariak
- Edertze gela
- Solariuma
- Ileapaindegia



**laket**  
Kardaberaz, 17 • Tel.: 943 330 679  
20120 HERNANI

### HORTZ KLINIKA

**Garmendia**



**Odontologia orokorra**  
Txirrita kalea 13 -1<sup>a</sup> ezk.  
Tel.: 943 55 34 92

### VGALDETXO

Jatetxea



**Bazkariak eta Afariak**  
Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 550240  
20120 Hernani (Gipuzkoa)

